

Txiki geratu zen herria

Eguerdian, 13:00ak aldera, ez zen jende gehiago sartzen Dema Plazan. Sagardo Eguna, oraindik orain, berakargarri den seinale. Aurten, gainera, inoiz baino lagun gehiago ibili da arratsalde zain gauz.

Aurtengo Sagardo Eguna eman duenarekin pozik dira antolatzaileak. Bereziki, antolaketa-lanetan jendea fin aritu zelako. Estrainekoz, aurten, bazkaria ez zen Mahaspildeginegin, Agerialden baizik. 150 lagun bildu ziren eta Mahaspildeginegin ez bezala, Agerialden denak elkarrekin bazkaltzeko aukera izan

zuten eta, honi esker, aparteko giroa sortu zen.

Bestetan ez bezala, arratsaldean jende ugari ibili zen herrian. Gau partean ere, tabernak gainezka ziren. Pello Zubeldia udaltzain-buruaren esanetan, arratsaldean jende asko ibili zen, beste urte batzuetan baino askoz gehiago. Uste baino lan gehiago izan zuten arren, ez zen aparteko arazorik izan.

Lehiaketan, lau herritar, hiru asturiar eta Gaztela-Leongo botatzaile bat aritu ziren. Kerman Errekondo izan zen, ordea, botatzaile onena. Urko Manterola bigarren eta Iker Muguruza, hirugarren.



RAMON CAMINO TAULA GAINERA IGO ZENEAN HASI ZEN SAGARDO FESTA.



SAGARDO EGARRIZ IRITSI ZIREN BISITARI GUZTIAK.



DEMA-PLAZAK ITXURA HAU HARTU ZUEN 12:30AK ALDERA.



1. NOAUA!KO ARGAZKIRAKO BILDUTAKO LAGUNAK.
2. CANTABRIAKO SAGARDOAK JAKINMINA PIZTU ZUEN.
3. LAGUN ASKO ARITU ZIREN SAGARDOA BANATZEN.
4. ETXERAT!EN ALDARRIKAPENAK OZEN ENTZUN ZIREN.
5. HIRU ASTURIAR ETA GAZTELA-LEONGO BOTATZAILE BAT ARITU ZIREN LEHIAKETAN. IRUDIAN, IKER MUGURZA.



www.noaua.com

Sagardo Eguneako argazki ugari